



Zerbitzu eta Prozeduren Katalogo Korporatiboa [ZPKK]

Funtzionaltasun berriak

2.3.0 bertsioa – 2025eko azaroa

Edukia

Berritasun garrantzitsuenak [\[joan zuzenean\]](#)

ZPKK Zerbitzu eta Prozeduren Katalogo Korporatiboaren bertsio berri horrek funtzionalitate berriak, lehendik dauden funtzionalitateen hobekuntza batzuk eta akatsen zuzenketak gehitzen ditu.

Funtzionalitate berri hauen helburua da *etorkizunean* zerbitzuen web-fitxa argitaratzeko behar diren datu guztiak definitzea.

ZPKK-k, *etorkizun hurbilean*, Zerbitzuak Argitaratzeko aplikazioa ordeztuko du.

Eskatzen diren ekintzak eta berrikusi beharreko puntuak [\[joan zuzenean\]](#)

Zerbitzuen Katalogoa **funtsezko aplikazioa** da Administrazio Publikoan, eta oso garrantzitsua da zerbitzuei eta haien prozedurei buruz biltegiatutako informazioa **zuzena eta fidagarria** izatea; izan ere...


- ✓ informazioa partekatzen du Administrazioko beste sistema informatiko batzuekin
- ✓ katalogoa **publikoa da eta ikusgai dago** euskadi.eus egoitza elektronikoan

Horregatik guztiagatik, garrantzitsua da zerbitzuak eta prozedurak definitzen dituen informazioa berrikustea.

Berritasun nabarmenak

❖ Zerbitzuen eta prozeduren informazioa zabaltzeko eremu berriak

- Herritarrentzako arreta – atal berriak:




- Informazio osagarria: aukera ematen du zerbitzuaren eta izapideen esparruan herritarrentzat interesgarria izan daitekeen informazioa gehitzeko (ohiko galderak, esteka interesgarriak, laguntza-gidak...).
- Oharrak: herritarrentzako informazio-oharrak, zerbitzuaren edo prozeduraren web-fitxarekin batera argitaratzen direnak.
- Barne-koordinazioa: zerbitzuari edo prozedurei buruzko informazio interesgarria osatzeko atala, herritarrentzako arretan lan egiten duten langileentzat garrantzitsua izan daitekeena. Atal honen edukia Jaurlaritzaren sarean soilik egongo da eskuragarri.

Berritasun nabarmenak

❖ Izapidearen konfigurazioa – Prozedurei izapideak gehitzea

- Izapideei buruzko informazioa sartzea prozeduran, Izapideen Gordailutik.
- Izapideen informazioa pertsonalizatzea eta definitzea:
 - Deskribapena
 - Izapidetzeko epea:
 - Eskakizunak
 - Aurkeztu beharreko agiriak definitzea
 - Izapideetarako estekak



Zerbitzuen Katalogoan herritarrek esku hartzen duten izapideei buruzko informazioa baino ez da konfiguratzen. Ez dira definitzen Administrazioaren barruan egiten diren izapideak.

Berritasun nabarmenak


❖ Zerbitzuaren eta prozeduraren web-fitxa

- ❖ Zerbitzuen eta prozeduren web-fitxa prestatzera bideratutako funtzionalitate berriak:


- ❖ Aurrebista: euskadi.eus egoitza elektronikoko izapideen katalogoan argitaratuko den web-fitxan informazioa nola ikusten den egiaztatzeko.



- ❖ Izapidetze-menuaren diseinua: aplikazioak berez menu bat sortzen du, web-fitxan izapidetzea erakusteko; baina funtzionalitate berri honekin proposamen hori birdiseinatu ahal izango da.



Aurreikusi >>



Bertsio honetan, oraindik ezin da argitaratu web-fitxa euskadi.eus egoitza elektronikoaren Izapideen Katalogoan.

Eskatzen diren ekintzak eta berrikusi beharreko puntuak

❖ Zerbitzuari eta haren prozedurei buruzko informazio garrantzitsua

Berrikusi beharreko funtsezko puntuak:

- Zerbitzuen eta prozeduren **egoera** egokia ezartzea. *Dagoeneko indarrean ez badaude, Historikora pasatuko dira, eta Zirriborroan ez badaude, "Indarrean" egoerara pasatuko dira.*
- Deskribapenak eta izenak hizkuntza argi, erraz eta hurbilean **idaztea**.
- **Organo arduraduna** eta **araudia**.
- Beharrezkoa bada, **kolektibo hartzaileak** berriz esleitzea eta haiei buruzko informazioa berriz definitzea. Eremu honetan, oso garrantzitsua da baimenduta dauden kolektiboak eta **izapidetze-kanalak sailkatzea**.
- Zerbitzuko "Digitalizazioa" atalean >> **Izapide elektronikoen aplikazioa** ezartzea.
- **"Herritarrentzako arreta"** ataleko informazio guztia betetzea, datu horiek web fitxan ikusiko baitira.
- Administrazio-familiei dagozkien prozedurak [dirulaguntzak eta bestelako laguntzak] eta [sariak eta lehiaketak] >> **"Prestazioa"** ataleko informazioa berrikustea eta osatzea

Eskatzen diren ekintzak eta berrikusi beharreko puntuak

❖ Indarrean dauden prozeduretan izapideak gehitzea

Etorkizunean argitaratuko diren web-fitxei begira, garrantzitsua da ondo zehaztuta edukitzea prozeduren izapidetzeari buruzko informazioa, batez ere INDARREAN dauden prozedurei buruzkoa.

Ataza horretarako, banan-banan prozedura bakoitzean sartu beharko da, eta, "Izapidetzea" atalean, izapideak sartu, izapidetze-epeak, estekak eta berrikusi beharreko gainerako informazioa.

Garrantzitsua da aldian-aldian prozeduraren web-fitxa aurrez bistaratzea [aurrebista], herritarrei nola aurkeztuko zaien ikusteko (*web-fitxa argitaratu daitekeen unean*).

Eskatzen diren ekintzak eta berrikusi beharreko puntuak

❖ Zerbitzu eta prozeduren web-fitxa prestatzea

- Aurreko ataletan azaldu den moduan, garrantzitsua da zerbitzuei eta haien prozedurei buruzko informazio guztia berrikustea, bai eta falta diren datuak osatzea ere.
- ZPKK-k Zerbitzuak Argitaratzeko aplikazioan dagoen informazio guztia jaso behar du.
- Ekintza-barran dagoen “Aurrebista” botoiaren bidez, web-fitxa nola geratzen den ikus daiteke.
- Hasiera batean, “Historikoa” egoeran dauden zerbitzuak eta prozedurak ez dira berrikusiko, baina baliteke eduki horien informazio "minimoa" guztiz zuzena ez izatea.
Lehentasunezkoa ez bada ere, komenigarria litzateke prozedura horiek ere berrikustea, eduki horiek ere Interneten argitaratuko baitira.
- Zerbitzuan, Izapidetze-menua izeneko funtzionalitatearen bidez, izapidetzeri buruzko informazioa web-fitxan erakusten duen menua birdiseina daiteke, herritarrei ematen zaien informazioa hobetzea beharrezkoa bada.

Eskatzen diren ekintzak eta berrikusi beharreko puntuak



Berrikuspena zentratzea INDARREAN dauden zerbitzu eta prozeduretan



Garrantzitsua da Zerbitzu eta Prozeduren Katalogo Korporatiboa berrikustea, zerbitzuak argitaratzeko egungo aplikazioa ordeztuko baitu.





Zerbitzu eta Prozeduren Katalogo Korporatiboa [ZPKK]

Eskerrik asko

